



Andoaingo Udala



e// (Euskaraz barra-barra) asteburua: abenduaren 1etik 3ra egingo dira Euskararen Nazioarteko eguneko ekitaldiak

- **Hainbat ekimen antolatu ditu Euskara sailak Euskararen nazioarteko egunaren harira**
- **Gazteentzat ihes-gela edo e// marka duten ostalari eta merkatariei aitortza ekitaldia, antolatu diren ekimenen artean.**

Andoainen, 23-11-07.- e// Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak elkarlanean martxan jarri duten marka da, Euskal Herri osorako sortua.

Merkatari, ostalari eta zerbitzuei bideratutako marka da, eta ikurra duten jardundegietan bermatuta dago euskaraz egin ahal izatea; hau da, ikurra dagoen tokietan, herritarrak beti aritu ahal izango du euskaraz, beti egongo delako euskaraz ulertuko duen langileren bat.

Marka jendaurrean irailean aurkeztu bazen ere, Andoainen 2022ko udan jarri genuen martxan markaren pilotajea.

Gaur-gaurkoz, Andoaingo 61 merkatarik eta ostalarik egin dute bat markarekin, eta denda eta tabernetako sarreran ikusgarri dagoen pegatina borobil gorri batekin identifika daitezke.

Abenduaren 1etik 3ra, e// asteburua Andoainen

Markaren zabalkundea egiteko asmoz, e// asteburua izango dugu abenduaren 1etik 3ra.

Hiru egun horietan zehar ihes-gela (scape room-a) izango da goikoplazan. Arrakasta handia eduki duen ekimena da, dagoeneko bete baitira eskuragarri zeuden plaza guztiak.

Bestalde, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, eguerdiko 12:00etan e// ekitaldia izango da Basteron. Ekitaldi horretan e// marka duten merkatarik eta ostalariek nahiz herritar orok hartu ahal izango dute parte. Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, normaltasunez egunerokoan euskaraz bizitzeko hautua erdigunean jarri eta erabileran eragiteko aprobetxatzea da helburua. Izan ere, Andoainen badira euskaraz lasai aritzeko espazioak. Ekitaldiaren beste helburuetako bat izango da e// markarekin bat egitea erabaki duten Andoaingo merkatarik eta ostalarien apostua balioan jartzea.

Ekitaldia Beatriz Egizabal lasartearrak aurkeztuko du eta Gernikako Audience musika taldeak girotuko du. Gainera, 50€ko 4 bono zozketatuko dira bertaratutakoen artean, Andoainen e// marka duten denda eta tabernetan erabiltzeko. Ekitaldiaren amaieran, bertaratutakoentzako luntxa izango da.